

Eartha Kitt artista 81 urtetan zendu da minbiziaren ondorioz

Kantari, dantzari eta aktore gisa saritu zuten, eta Batman saileko Catwoman izan zelako gogoratzen dute askok

Erredakzioa Baiona

Telebistako eta zinemako aktore izana, antzerkian eta kantuan aritua, guti izendatu dituzte, Eartha Kitten gisan, aldi berean antzerkiko Tony, Musikako Grammy eta Telebistako Emmy Awards sarietarako. Guztietan talentu handikoa baitzen. Bi Emmy Awards irabazi zituen. *I Want to Be Evil, C'est si bon* eta *Santa Baby* kantuak dira ezagunenak. 81 urterekin zendu zen Eguberri egunean; minbiziak eraman du, bi urtez eri egon eta.

Bere burua «neskatxa sexi» gisa izendatzen zuen, eta Orson Wellsek ere «munduko emazte kitzikagarriena» zela iragarri zuen; sariak baino haratago, anitzek oroitzen dute hura 60ko hamarkadan Batman saileko Catwoman izan zelako. Boz fin, eder eta sentzualak laguntzen zuen joko sexia bururaino eramaten.

AEBetako Hego Karolinako kotoi etxalde batean sortua 1927an gaztaro gogorra izan zuen. Ama Cherokee indiano beltza, aita zuria, New Yorkeko Harlem auzoan bizi zuen izeba baten etxera joan zen, amaren bigarren senarrak etxetik bota zuelako, zuriegia zelako. Hor ere gaizki, eta etxetik eskapatu zen. Katherine Dunham konpainian sartu, eta hari esker hasi zuen bere karrera, lehenik European eta gero AEBetan.



Watson Baionako ostatu batean, diskoaz mintzatzeraz etorria. Gaur egun, Arrangoitzen bizi da. GAIZKA IROZ

Gitar akustikoa lagun

Akelarre taldearekin egin bideagatik bereziki ezagun, lehen bakarkako diskoa kaleratu du Watsonek

Nora Arbelbide Baiona

Simpleki eta zuzentasunez eragiteko asmoz, diskoak dakartzan kantuak bezala, titularririk gabe, soilik bere izena dakar Watson izengoitia duen Patrice Dumora-ren lehen bakarkako diskoak. Laguna Studios-ekin grabatua, Pop-rock estiloko musika dago. Dena akustikoa, haatik. Alabaina, formatu txikia garrantzitsua zaio Watsoni, horri esker non-nahi ematen ahalko baititu kontzertuak. Diskoa baino haratago, zuzeneko harremana baitu gustuko eta helburu.

Gitarak laguntzen dituen kantu gehienak hark idatziak ditu. Emaitza, biziki pertsonala gelditzen da. Orain arte egin duen la-

nik pertsonalena dela dio hark ere: «Nire barrukoak dira agertzen hemen. Ia-ia kantu guztietan lehen pertsona erabiltzen dudala konturatu naiz berrikitan. Idazterakoan ez diot horri kasu egin, baina hala da». Lehen pertsonan, barneko minei eta pozei hurbiltasun bat gehitzeko gisan: «Horren gibelean ez da kalkulurik, maite dudana eman dut diskoan. Hau da, nire gustua». Gitarra, euskara, adiskide zenbait eta orain arte



«Diskoaren gibelean ez da kalkulurik, maite dudana eman dut diskoan»

PATRICE DUMORA 'WATSON'
Kantari eta musikaria

plazaz plaza metatu esperientzia biltzen ditu diskoak. Neil Young zuen miresten, eta hamabost urte bete dituenetik ari da musika egiten Watson. Geroztik, hainbat tal-

detan parte hartu du, eta gaur egun ere parte hartzen du. Agian, Akelarre taldearekin eraman lanagatik izan da bereziki ezagun orain arte.

Zortzi urtez ahotsa eta akordeak egin zizkion taldeari, eta bost disko izan ziren haren uzta. Akelarre taldean jotzen hasi zelarik, AEKn zihardu euskara ikasten. Besteak beste, *1, 2, 3, 4, ispi-luen aurrean* taldearen kantu ezaguna hark du idatzia. Oraino gogoan du nola garaian letra horiek irakasten zituzten barnetegietan: «Niko Etxartek esan zidan nire euskara simple-simplea zela eta ulergarria eta horregatik dute berriz hartua. Euskaldun berria naiz». Denbora asko pasatzen du idazten, luzaz hausnartu eta landuak dituen hitzak, esaldi bat bururatu eta horrek beste norabide batera eramaten duela. Hori bai, beti euskaraz: «Hemen bizi naizela». Landetan sortua da Watson bestela, Shalossa herrian. Eta azken hogeita bost urte hauetan bizi da hemen.

Ilustrazioari buruzko bost hitzaldi bildu dituzte liburu batean

Jon Sudupe, Iñaki Aldekoa, Jose Ramon Zubiaur, Iñaki Zabaleta eta Luis Mari Mujika dira hitzaldien egileak

Erredakzioa Donostia

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak (EHAA-RSBAP) antolatuta Azkoitiko (Gipuzkoa) Insausti jauregian Ilustrazioari buruz egindako nazioarteko jardunaldietako bost hitzaldi biltzen dituen liburua kaleratu du Erroteta argitaletxeak, EHAA-RSBAPen laguntzaz, *Ilustrazioa, Ilustrazioak* izenburuarekin. Iaz egin ziren jardunaldiak, azaroaren 14tik 17ra bitarte. Jon Sudupe, Iñaki Aldekoa, Jose Ramon Zubiaur, Iñaki Zabaleta eta Luis Mari Mujika dira hitzaldien egileak.

Ilustrazioaren krisiehupean da Jon Suduperen hitzaldiaren izenburua, eta hiru ataletan banatua dago: *Argien mendea, Garai ilunak* eta *Etorrizko itzaropentsua*. Iñaki Aldekoak *Ilustrazioaren eragina euskal literaturan* du aztergai bere lanean, eta batez ere Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* aipatzen du.

Jose Ramon Zubiaurrek *Hizkuntzalaritza Euskal Herrian XVIII. mendean* aztertu du. Lanaren amaieran egiten duen laburpenean dio Manuel Larramendi «euskara moderno eta jantziaren sortzailea» izan zela.

Iñaki Zabaletaren lanak *Euskaldunak Wilhelm von Humboldt-en begietan* du izenburu eta Luis Mari Mujikak *XVIII. mende-ko herri lirika* du aztergai.